

2019

**KONTSEILUAREN
URTEKO
IRAKURKETA
ETA ONDORIOAK**



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

www.kontseilua.eus

Izenburua: Kontseiluaren urteko irakurketa eta ondorioak

Egilea: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

Argitaratze-data: 2019ko azaroaren 8a

Ale kopurua: Argitalpen digitala (www.kontseilua.eus atarian eskuragarri)

KONTSEILUAREN URTEKO IRAKURKETA ETA ONDORIOAK

04

1. ATARIKOA

1.1. Sarrera	5
1.2. Edukien antolaketa	5

06

2. HIZKUNTZA-POLITIKEK EMANDAKOA

2.1. Euskal Autonomia Erkidegoa	7
2.2. Nafarroako Foru Komunitatea	9
2.3. Ipar Euskal Herria	11
2.4. Institutuzioen arteko elkarlana.....	12
2.5. Zenbait azterketa.....	12

14

3. HAUTESKUNDE-URTEA HEGO EUSKAL HERRIAN

3.1. Nafarroako Parlamentua.....	15
3.2. Udalak eta Batzar Nagusiak	16
3.3. Espainiako Kongresurako hauteskundeak....	16

18

4. HERRI-GOGOIA

4.1. EUSKARALDIA.....	19
4.2. KORRIKA.....	19
4.3. Bestelako ekimenak	20

22

5. ONDORIO NAGUSIAK



1

ATARIKOA

1.1. SARRERA

Duela bi urte ekin zion Kontseiluak urteko irakurketa egiteari, eta aurreko urtearen erabakia interesgarritzat jo du Kontseiluak ariketa hori egitea. Denboraren abiadurak ez digu askotan aukerarik ematen egindakoa eta gertatutakoa modu pausatuan aztertzeko, eta ondorioz, etorkizunari begirako urratsak definitzea zailtzen digu.

Hori ez gertatzeko, edo gerta ez dadin laguntzeko behinik behin, Kontseiluak hizkuntza-politikarekin lotutako gertaera nagusienak bildu nahi izan ditu eta modu ordenatu batean eskaini.

Izan ere, horixe da dokumentu honen helburu nagusia. Urtean zehar izandako gertaerak jasotzea eta sailkatzea, eta horietan oinarriturik hurrengo hilabeteetako jarduna bideratzea. Esaera dio atzeak erakusten duela aurrean nola dantzatu, eta, beraz, dantza nola egin zehazteko ekarpena egin nahi izan dugu.

1.2. EDUKIEN ANTOLAKETA

Aurreko irakurketetan bezalaxe, Kontseiluak hemeroteke baliatu du urteko irakurketa prestatzeko. Hartara, 2018ko azaroaren 2tik 2019ko azaroaren 8ra euskarazko hedabideetan jasotakoak izan da, neurri handi batean, urteko irakurketa egiteko baliatu ditugun elementuak.

Orain arteko txostenetan Kontseiluak lau zutabek eusten duten tenpluaren irudia baliatu du urteko edukiak sailkatzeko. Horrela, corpus juridikoa, plangintza, baliabideak eta herri-gogoa direlako atalen arabera bereizi ditugu edukiak. Gainera, lehen hiru multzoetan hiru eremu administratiboen azpi-sailkapena egiten genuen.

2019ko elementu guztiak aztertu eta antolatu ondoren, eta txostena arintzearen, banaketa administratiboa izan dugu ardatz berriak sailkatzeko. Halere, eremu bakoitzaren barruan hiru atalei erreparatu nahi izan diegu.

Bestalde, zalantzarik gabe, Hego Euskal Herrian hauteskunde-urtea izan da 2019a, eta horrexegatik hauteskundearen inguruko atala modu berezitan aurkeztu nahi izan dugu.

Azkenik, herri-gogoari eta ondorioei dagozkien atalak ohiko moduan jaso ditugu.

2

**HIZKUNTZA-POLITIKEK
EMANDAKOA**

Eremu administratiboaren arabera azterketari ekin aurretik, aipatu beharrekoa da iazko urtearen amaieran Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren bosgarren ebaluazio-zikloa egin zela. Horrela, Kontseiluak eta Behatokiak txosten bateratua aurkeztu zioten Adituen Batzordeari eta konpromisoen urratzeak non gertatzen ziren helarazteaz gain, neurri zehatzak proposatu zituzten Gutunak ezartzen dituen konpromisoak egiazki betetzeko.

Egia esan, txostenean egindako gomendioak aurreko txostenetan egindakoen errepikapenak besterik ez ziren, bereziki, Estatuko Administrazioari, Justiziar, osasungintzari eta Nafarroako zonifikazioari lotutakoak.

Adituen Batzordeak bisita egin zuen Euskal Herrira eta bilerak egin zituen instituzioetako zein Euskalgintzako ordezkariekin Iruñean; Kontseilukoak eta Behatokiak barne.

2.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

CORPUS JURIDIKOari dagokionez, etorkizunean eragin handia izango duten bi legeren aurreproiektuak jarri dira mahai gainean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; eta beste bestetik, Legebiltzarrak hirugarren baten eztabaidari eman dio hasiera.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak **hezkuntza legearen aurreproiektua** egin aurretiko kontsulta-epea zabaldu zuen maiatzean. Kontseiluak ekarpena egin zuen, besteak beste, ikasleek hizkuntzen ofizialtasunaren ondorio juridikoen arabera erdietsi beharreko euskara-gaitasunera iristeko lege berriak eredu orokortua abiatzeko agindua jaso beharko duela adieraziz, bai eta egungo hizkuntza-ereduen sistema desagerrarazteko eskatuz ere.

Irailean sailburuak agindu zuen urtea amaitzerako proposamen bat aurkeztuko zuela.

Horri lotuta esan behar dugu, Eusko Jaurlaritzak berak ekainaren 27an aurkeztutako hezkuntzari buruzko diagnostikoaren txostenean agertutakoak agerian utzi zuela lege berri baten beharra, hizkuntzari dagokionez, bederen. Aipatu txostenean hainbat aldaketaren premia mahai gaineratzen zen. Horrela, euskararen irakaskuntza ere geldialdia

nabari zen. Nahiz eta D ereduan gero eta ikasle gehiago egon eta euskara etxean jasotzen duten ikasleak ere gehiago izan, 14 urterekin, ikasleen %45ek ez daukate nahiko euskara mailarik.

Hartara, matrikulazioari dagokionez, irailean egindako adierazpenetan sailburuak euskarazko ikaskuntzak beste koska bat egin duela gora adierazi arren, eta, ondorioz, Haur Hezkuntzan bost ikasletik lau pasatxo D ereduan ariko direla esan arren, sakoneko arazoa dago ikasleen euskara-gaitasunarekin. Hori zer pentsa ematen ari da hezkuntzako hainbat sektoretan, bai eta Kontseiluan ere.

Beste alde batetik, 2019ko irailean Eusko Jaurlaritzaren **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak kontsumitzaileen estatutu berria** egin nahi duela iragarri zuen. Izan ere, sailean uste dute azkena onartu zenez geroztik gauzak asko aldatu direla eta lege berria beharrezkoa dela.

Hizkuntza-eskubideei dagokionez, ez dago berrikuntzarik eta orain artekoa besterik ez du jasotzen. Sailburuaren arabera kontsumo-ohituretan izandako aldaketei erantzun nahi diete, eta egoera txarragoan, mendekotasunean, babesik gabe edo diskriminatuta dauden kolektiboak bereziki aintzat hartu nahi ditu legeak. Tamalez, hizkuntza-eskubideen urraketek zigor esparrutik kanpo geratuko dira, eta, beraz, kontsumitzaileen beste eskubide batzuetan ez bezala, hizkuntza-eskubideen urraketek ez diete inolako ondorioz eragiten urratzaileei.

Hirugarrenik, aipatu behar da otsailaren 4an Jaurlaritzako Lurralde Plangintza Sailak atzera bota zituela **lurralde antolaketako gidalerroetan UEMAk sartutako alegazioak**, eta, ondorioz, lehen bertsioak baino eragin praktikoa ahulagoa izango zuten. Horrela, besteak beste, arnasguneen babesa eta eragin linguistikoaren ebaluazioa gidalerroetatik kanpo utzi dira.

Azkenik, nahiz eta dokumentu hau idatzi zenean onartuta egon ez, aipatu behar da epe laburrean hizkuntza-eskubideei eta hizkuntza-normalizazioari eragingo dieten bi dekretu onartuko dituela Jaurlaritzak.

Batetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea garatzeko **toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko dekretua**.

Hedabideek jasotakoaren arabera, udal legeak udalei hizkuntza-politikarako eskumen gehiago esleitzen dienez, hizkuntza propioaren aldeko neurri argiak egin beharko dituzte, eta modua jarriko dute erabat euskaraz egiteko. Bestalde, udal bakoitzaren esku geratuko da irizpideak zehaztea, baina aurrerabidea eskatuko zaie. Horretarako plana eduki beharko dute udalek. Hirugarrenik, langileek lanpostuari nahitaez esleitutako hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatu baldin badute, euskaraz jardungo dute, ahoz zein idatziz, toki erakunde bakoitzak onartu duen planean horri buruz ezarrita dagoenarekin bat etorrira.

Halaber, Dekretuaren arabera, herritarraren hautua izango da hizkuntza erabiltzeko oinarria: harremana

zer hizkuntzatan eduki nahi duten, hori bermatu beharko dute udalek. Horretaz gain, udalek hizkuntza klausulak ezarri beharko dituzte kontratu publikoetan. Oinarria hau da: zerbitzu hori udalak berak emango lukeen baldintza berberetan eskaini behar du kontratatutako enpresak.

Azkenik, ohikoa da azpiegitura proiektuak onartzera, ingurumenean izango duten eragina aztertzea, eta kalteak arintzeko neurriak proposatzea. Aurrerantzean, gisa bereko azterketa bat egin beharko dute hizkuntzari dagokionez ere. Udal legearen berritasunik handienetako bat izan zen hori, eta orain ari dira prozesua zehazten.

**Herri-administrazioetan
euskararen erabilera
normalizatzeko
prozesua arautzeko
dekretu baterako
proposamena** ”



KONTSEILUA
www.kontseilua.es

www.twitter.com/kontseilua
www.facebook.com/EuskararenKontseilua

Kontseiluaren proposamena 86/1997 Dekretua ordezkatzeko

Bigarrena, aldiz, Euskal. Autonomia Elkarteko **herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretua ordezkatu** behar duena.

Hizkuntza Politikako Sailburuordeak hedabideetan aurreratutakoaren arabera, erabilera da dekretu berriaren erronka nagusia, eta hurrengoak izango dira honen helburu nagusiak: ezarritakoaren arabera hizkuntza-eskubidea bermatzea, euskara normaltasunez erabiltzen dela ziurtatzea, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna lortzea eta euskararen erabilera sustatzea toki erakundeen bitartez eremu guztietan.

Jaurlaritzaren ekimenez sustatu diren arauak gain, aipatzekoa da **Eusko Legebiltzarrak** iazko azaroaren amaieran onartu zuela EAJ, PSE-EE eta Elkarrekinen baitzarekin, euskara doan ikasi ahal izateko eta derrigorrezko eskola bukatzen dutenei B2 maila ziurtatzeko EH Bilduk aurkeztutako lege-egitasmoa, hain zuzen ere, **Euskara Jakiteko Eskubidea Bermatzeko Lege Proposamena**.

Uztailan, alderdiek ekarpenak egin zituztuen dokumentuari. Ondoren, EHBildu eta Elkarrekin alderdiek haien arteko adostasuna lortu zutela aurreratu zuten. Halere, oraindik ez da prozesua

amaitu, eta beraz, ez dago jakiterik zein izango den lege berriaren behin betiko edukia.

BALIABIDEen atalari dagokionez, aipatzeko modukoa dela uste dugu iazko azaroan euskal hedabideen laguntza-sistema aldatuko zela aurreratu gurela, eta aurtengo martxoan sistema berria adostu zutela euskarazko hedabideek eta EAEko instituzioek. Horren arabera gastuen %39 estaliko dute laguntzek.

Horretaz gain, aipatu behar da, lehen aldiz Eusko Jaurlaritzak eta euskarazko egunkari nazional **BERRIAk** hitzarmena sinatu zutela lehen aldiz.

2.2. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Lehenik eta behin, gogoratu behar dugu Nafarroako Parlamentuak **Euskararen Lege berria idazteko sortutako Batzorde Bereziak** ibilbidea bukatu zuela urtarilaren amaieran. Aipatu batzordeak legea berritzeko premia sumatu arren, korapiloak daudenez ez zuten pausorik zehaztu. Horrela, egungo legea egokia ez dela eta aldatu



HEKIMENen eta instituzioen arteko lankidetzaren hitzarmena



Kontseiluak Nafarroako Parlamentuko Batzorde Bereziari lege berria argitaratzeko eskaera egin zion abenduan

behar dela jaso arren, ez zen adostasunik egon lege berria zehazteko.

Horren aurrean, Kontseiluak benetako aldaketaren aldeko aldarria egin zien alderdiei eta gaitzetsi zuen lege berria idazteko prozesua abian jarri ez izana. Halere, lorpenen bat izan zela ondorioztatu zuen, eztabaida parametro egokietan kokatu zela uste duelako.

Bestalde, **Nafarroako Justizia Auzitegiko Epaitegiak** zenbait sindikatuk administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 foru dekretuaren aurka jarritako **helegitearen epaia argitaratu** zuen.

Egia da, bai, epaiak berak helegitearen edukiaren hainbat pasarte arbuiatzen dituela, besteak beste, arrazoi juridikoak baino arrazoi politikoak erabiltzen direlako, edota oinarritzko elementuak auzitan jarri nahi direlako, tartean, elebitasunaren hautazko printzipioa. Halere, elementu eztabaidagarriak jasotzen ditu hizkuntza-eskubideen subjektuen inguruan.

Ondorio praktikoei dagokienez, epaiaren arabera, legeak ezarritako eremu misto zein ez-euskaldunean ezin izango da exijitu euskarri elebidunak jartzea; eta eremu horietan ezin izango da lanpostu gutxietan euskararen ezagutza baloratu.

Gehiengo sindikalak eta euskalgintzak berariaz eskatu genion Gobernuari epaiari kasazio-helegitea jar ziezaion, izan ere, irmo bihurtzen denean Dekretuak jasotzen zituen elementu aurrerakoiak bertan behera geratuko ziren. Tamalez, ez zion erreparatu gehiengo sindikaren eta euskalgintzaren eskaerari. Horren aurrean Gobernuak iragarri zuen euskarari buruzko araudi berri bat prestatzen ari zela.

Bestalde, dekretu horrekin jarrera hori agertu badu ere, azpimarratu behar dugu **Nafarroako Auzitegi berak ez duela inolako arazorik ikusi, lanpostu batzuetan euskararen derrigorrezko ezagutza** edota ezagutzaren balorazioa jasotzea. Ondorioz atzera bota ditu horren kontra egiten zuten zenbait helegite.

Horri lotuta, 2018ko abenduan, euskara eskakizuna ezarri zuen Nafarroako Gobernuak 55 postutan, batez ere osasun arloko lanpostuetan.

2017ko Dekretuak agintzen zituen **euskara-planei dagokienez**, otsailean azaldu zuen Gobernuak martxan jarri zituela sailtako euskara planak. Aurkezten lehena Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentua izan zen, eta ondoren, beste Departamentuek aurkeztu zuten. Lanpostuetan euskara eskakizunak ipintzeko proposamen bat ere egin zuten Gobernuak sindikatuei, "langileen eskubideak" ziurtatzeko

asmoz. Ondorioz, langileen borondatea izango zen ardatza Gobernuko postuetan euskara eskakizunak jartzeko. Horrela, beren burua euskalduntzeko prest zeuden langilerengana joko zen; ez, ordea, plangintza baten arabera estrategikoak liratekeen langileengana. Esan bezala, Gobernuaren asmoa langileen "eskubideak" bermatzea zen eta izkina egiten zien benetako beharrei.

Kontuan hartzekoa da, 2019an 23.037 lanpostutatik 2.797k zutela hizkuntza-eskakizuna, baina hezkuntzakoak kenduz gero, 124k (%0,48k).

Hezkuntzan aurrematrikulazio-kanpainak ez zuen berrikuntza handirik ekarri Nafarroan, baina agerian utzi zuen azken urteotako joera: euskarazko D ereduak %30 inguruan segitzen du, mugitu gabe. Erdara hutsezko ereduak, berriz, pixkaka-pixkaka ari da hazten ingelesezko programek hauspotuta.

Baliabideei dagokienez, helduen euskalduntzea sustatzeko diru laguntzei eutsiko diela zabaldu zuen Euskarabideak irailean.

2.3. IPAR EUSKAL HERRIA

Zalantzarik gabe **hezkuntzaren gaia** izan da ipar Euskal Herrian mugimendu gehien izandakoa. Azkenean uztailaren 16an aurreratu zuten

hilabeteetako liskarraren ondoren, Seaskak eta Parisek ituna egin zutela. Horrela, Akademia errektoretzak, EEPk eta Seaskak sinatutako hitzarmenaren arabera, orotara 19.5 postu eman zizkien gobernuak ikastolei.

Horri lotu behar diogu uztailaren hasieran bi eskola publikotan murgiltzen **esperimentazioa** jartzea onartu zutela, hain zuzen ere, Irisarrin eta Ainhoan. Hartara, Frantziak jarrera aldatu zuen, bestek beste, gurasoen mobilizazioei esker. Izan ere urte gatazkatsua izan dute eta hasiera batean ikuskariak esperimentazioari uko egina zion.

Bide gogorra izateaz gain, agintarien hainbat adierazpen ere kezkatzeko modukoak izan dira, esaterako, maiatzean hezkuntza-ministroak murgiltze ereduaren bertute pedagogikoak zalantzan jarri izana.

Beste urte batez uztailan ikasleek **brebeta** euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatu zuten; izan ere, hirugarrenez, brebetako zientzietako azterketa ezin izan dute euskaraz egin bost eskola eta lizeotako 193 ikaslek, frantziar Hezkuntza Ministerioak aginduta. Gogoratu behar dugu 2017an hasi zela hizkuntza-eskubideen aurkako eraso hau, hezkuntza-ministroak azterketa hori frantsesez egitea nahi baitu.



Seaskak Miarritzen antolatutako mobilizazioa

Hizkuntza Eskubideen egoera 2018



Behatokiaren 2018ko txostenaren azala

Hori horrela izanik ere, SEASKAko ikasleek zientzietako azterketak euskaraz egitea erabaki zuten, nahiz eta haien azterketak euskara ulertzen ez zuten irakasleek zuzen zitzaketela jakin.

Gauzak horrela, aipatzekoa da traben gainetik Seaskako ikasleek brebeta gainditu dutela. Hau da, zientzietako azterketak euskaraz ez dakiten irakasleek zuzendu arren, gainerako irakasgaietan lortutako emaitzei esker Seaskako ikasleen gehiengoak brebeta gainditu du.

Baliabideei dagokionez, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak hizkuntza-politikari buruzko mugaz gaindiko lankidetzatza-hitzarmena berritu zuten.

2.4. INSTITUZIOEN ARTEKO ELKARLANA

Euskal Herriko instituzioen arteko lankidetzari dagokionez, apirilaren 15ean berritu zuten **Hiruko Ituna** Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak. Aurten helburu zehatzak gehitu dizkiote Itunari: Helduen euskalduntzean, gaitasunen egiaztapenean, euskararen erabileraren sustapenean eta euskararen inguruko ikerketan.

Azkenik, aipagarria da Euskal Herri osoko instituzio garrantzitsuenek **Arnasa Gara** ekimena abian jarri zutela udazkenean. Ekimenaren helburua euskararen arnasguneetako biztanleen ahalduntzea, aitortza eta kontzientziazioa indartzea da gune horiek euskararen indarberritzean duten garrantziaz jabe daitezen.

Proiektuak bi fase izango ditu. Lehenengoan arnasguneen ahalduntzea eta aitortza bilatuko da, eta kanpaina bat abiatuko da. Bigarren fasean, berriz, ekimena Euskal Herri osora zabalduko da, arnasguneen errealitatea eta garrantzia ezagutzera emateko.

2.5. ZENBAIT AZTERKETA

Euskalgintzak sortutako **HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIAk** aurten ere argazkia egin dio du euskaldunon hizkuntza-eskubideen egoerari. **2018ko txostenean** Euskararen Telefonoa zerbitzuaren eta Akuilari sakelako aplikazioaren bitartez iaz jasotako bizipenekin osatu dute bilduma, eta eskubide urratzeek administrazioaren esparru guztiak blaitzen dituztela ondorioztatu dute. Horrela, diskriminazio kasuak jaso dira osasun zerbitzuetan, segurtasun arloan, justiziaren eremuan, administrazio jardura orokorretan,

hezkuntzan, aisialdian, hedabideetan eta baita kontsumo harremanetan ere.

Txostena taxutzeko garaian, bestalde, lau administrazio hartu dituzte ardatz gisa: Frantziako eta Espainiako gobernuak, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. Frantziari dagokionez, hezkuntza sistemari jarritako trabak dituzte. Espainiaren kasuan, berriz, gaztelania ezagutzeko derrigortasuna, konstituzioan ezarria, herritarren eskubideen gainetik segitzen duela adierazi zuten. Ondorioz, gaztelania ezagutzeko derrigortasuna hizkuntza-eskubideak urratzeko arrazoi bihurtu ohi dute

Bestalde, Behatokiak 2018 urteko irakurketaren ondorioetan udaletan eta herriko etxeetan jarri du azpimarra. Txostenean jasotakoaren arabera, udala edo herriko etxea da herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa. Udalen esku-hartzeak presentzia handia du herri eta hirietan. Toki administrazioen jokabideak eragin handia du herritarren egunerokokoan, eragina du bai gizarte bizitzan bai eta herritarrengan ere. Horrexegatik, Behatokiaren arabera udalgintzaren muinean, gestioaren arlo guztietan, txertatu behar da hizkuntzaren irizpidea eta euskararen trataera egokia. Herritarren eskubideak bermatzea ez baita soilik jakineko zinegotziaren esku utz daitekeen kontua edo euskara zerbitzu edo itzultzailearen bizkar geratuko dena. Herri agintari guztiek, zinegotzi bakoitzak bere lan eremuan hizkuntzaren ardura bere gain kokatu behar du.

ELEBIDEk uztailen aurkeztutako txostenean, 2018an hizkuntza eskubideekin lotutako gorabehera gutxiago jaso baditu ere, igo egin dira udalen jardunarekin lotutako kexuak.

Azkenik, **SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK** Eusko Jaurlaritzaren enkarguz **Euskaraldiaren inguruko ikerketa** egin duela, hain zuzen ere, Euskaraldiak herritarren hizkuntza ohituretan izan duen eragina nolakoa izan den ezagutzeko. Ondorio nagusiak Euskaraldiari eskainitako atalean jaso ditugu.



3

**HAUTESKUNDE-URTEA
HEGO EUSKAL HERRIAN**

Hego Euskal Herriko herritarrek hirutan joan behar izan dute bozkatzera 2019an zehar, eta bozketa-egun baten hiru instituziotan ordezkaritza hautatzeko eskubidea izan zuten, hain zuzen ere, maiatzean udaletako ordezkariak, batzar nagusi edo parlamentuko ordezkariak eta Europako Batasuneko legebiltzarkideak hain zuzen ere.

Hiru hauteskunde horietaz gain Espainiako Estatuko Gorteetarako (kongresua eta senatua) hauteskundeak birritan izan dira 2019an.

3.1. NAFARROAKO PARLAMENTUA

2015eko maiatzeko hauteskundeen ondorioz sortutako Parlamentuak zein Gobernuak aldaketa ekarri zuten Nafarroara, euskarari dagokionez. Lau urte hauek emandakoaren inguruko balantzea egitea ez da irakurketa honen xedea; hartara, hauteskundeetan jarriko dugu fokua.

Ohi duen bezala, Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak proposamena egin zuen legegintzaldi berrian Gobernuak inplementatu beharreko hizkuntza-politikaren inguruan.

Hamabost neurri zehatz bildu zituen Kontseiluaren ekarpenak, hainbat eremutan banatuta (administrazioa, hezkuntza, helduen euskalduntzea,

eremu sozioekonomikoa, hedabideak, teknologia berriak, kultura, aisialdia...). Gainera proposamen bakoitzaren barruan neurri zehatzak jaso zituen proposamenak. Hain zuzen ere, hurrengo legegintzaldian neurri horiek noiz abiaraziko dituzten erabakitzea besterik ez izateko Gobernuan.

Horrekin lotuta, Kontseiluak legegintzaldi berriaren hasieran nahitaez konpondu beharrekoak proposatu zituen: euskara beste hizkuntzak baino gutxiago ezin baloratzea lan deialdietan, D ereduko ikastetxeei PAI programa jartzeko derrigortasuna kentzea, irakaskuntzan zerrenda bakarra abian jartzea eta euskarazko lanpostua duten langileei beste lanpostuetara lekualdatzeko eskubidea bermatzea eta helduen euskalduntzearen sektorearekin hitzarmen estrategikoa sinatzea. Kontseiluaren aburuz horietako batzuk aurreko gobernutik eratorritako ajeak ziren eta nahitaezkoa ikusten zuen bidegabekeria horiei guztiei legegintzaldiaren hasieran amaiera ematea.

Hemerotekari erreparatuz gero, azpimarratu behar dugu, eta Kontseiluak hala ondorioztatu zuen, hauteskunde-kanpainen hizkuntzaren gaiari modu zuzenean eta irmotasunez erantzun zieten bakarrak orain arte euskaldunon bereizkeria eragiten zuten politikak abian jarri zituztenak izan zirela.

Maiatzaren 26ko hauteskundeek panorama berria utzi zuten lurraldean, eta aritmetikak ez zuen ahalbidetu aurreko legegintzaldiko gehiengoak errepikatzea.

Nafarroako hizkuntza-politika garatzeko



15 proposamen



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEAK
KONTSEILUA

Kontseiluak aurkeztutako proposamena



Kontseiluak proposamena aurkezteko antolatu zuen ekitaldia

Hori horrela izanik ere, Gobernu berria hautatzeko mekanismoa abian hasi, eta Gobernuaren sostengatu behar zuten alderdiek (Geroa Bai, Ahal Dugu, PSN, eta Ezkerra) akordio programatikoa adostu zuten.

Esan behar dugu, uztailan aurkeztutako akordio programatikoa kezkak sortu zituela hezkuntzaren eta hizkuntza-politikaren arloan. Izan ere, hezkuntzaren alorrean, esaterako, ikasteredu desberdinak biltzen dituzten ikastetxeak sustatu beharra da helburuetako bat. Hizkuntza-politikaren alorrean, aldiz, plangintza berria egingo den konpromisoaz gain neurri zehatz gehiago ez zen jasotzen.

Azkenik, irailean Gobernuak lehen 100 egunetan hartu beharreko neurriak jaso zituen gaztelania hutsezko dokumentu batean, eta hizkuntza-eskubideei lotutakoak urriak izan ziren. Gainera, proposamena PAI eredia orokortzeko balio dezakete. Euskalgintzatik kezka bizia egon da PAI eredia orokortzearekin, izan ere, ingelesaren mesedetan euskarari ikastordua kentzeak azken horretan gaitasun nahikoak eskuratzeko oztopa dezke.

3.2. UDALAK ETA BATZAR NAGUSIAK

Maiatzean ere hiru lurraldeetako Batzar Nagusietako kideak eta udaletako zinegotzi zein alkateak aukeratu ziren. Erakunde horiei dagokienez, Kontseiluaren eragin-lana instituzioak eratzen zirenerako utzi zen.

Horrela, udal berriak eratuta, Kontseiluak hizkuntza-eskubideak bermatzeko proposamen integrala aurkeztu nahi izan du legegintzaldi berriari begira: **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena.**

Udalak dira herritarrengatik hurbilen dauden instituzioak, eta herritarren egunoroko bizitzan asko eragiten dute hizkuntza-politikaren inguruan hartzen dituzten erabakiek eta garatzen dituzten politikek.

Horretan oinarrituta, Kontseiluak Protokoloan jasotzen diren neurriak udalen betaurrekoetatik irakurtzeko ariketa egin zuen, eta ariketa horren emaitza izan da Udal Garapena.

Horrela, Protokoloaren Udal Garapena udal administrazioari begira hiru mugari planteatzen du, batetik, zerbitzuak eta euskaraz prozedurak egingo direla bermatzea; bigarrenik, komunikazio guztia euskaraz izango dela bermatzea, eta, hirugarrenik, euskaraz lan egingo dela bermatzea.

Horretaz gain, udaletik kanpo eragin dezakeen eremuak ere identifikatu dira Udal Garapenean, hala nola, hezkuntza, eremu sozioekonomikoa, onomastika, hedabideak eta teknologia berriak eta kultura. Horrela udalek eskumen osoa edo eskumen partekatua dituen jardunetan, edota eskumenik ez baina zuzenean edo zeharka laguntzen dituenetan, edota udala bezero edo zerbitzu-hartzaile denetan hartu beharreko neurriak zehaztu ditu dokumentuak.

3.3. KONGRESURAKO HAUTESKUNDEAK

2019an Hego Euskal Herriko biztanleek birritan jo behar izan dute hauteskontzietara gorteetako ordezkariak aukeratzera, kongresuan zein senatuan.

Egia da, bai, hauteskunde-aurreko giroan hainbat alderdik mehatxu bortitzak egin zituztela gobernura iritsiz gero gaztelaniarena ez berezko beste hizkuntza-



Protokoloaren Udal Garapenaren aurkezpena Gasteizen

komunitateen eskubideak urratzeko zer-nolako neurriak hartuko lituzketen aurreratuz. Hezkuntza eta Estatuko administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaitasuna jarri zituzten jomugan, eta aurreratu ere egin zuten araudia aldatzeko prest zeudela.


Estatuan gaztelania ez berezko beste hizkuntzen normalizazioaren alde lan egiten dugun eragileok horri aurre egin beharra erabaki genuen. Horrela aragoieraren, asturieraren, galizieraren, katalanaren eta euskararen alde lan egiten dugun NOGARA, AMESA, INICIATIVA POL ASTURIANU, OMNIUM, CIEMEN, PLATAFORMA PER LA LLENGUA eta KONTSEILUA eragileok *Hizkuntza-berdintasuna: Askatasuna, aniztasuna eta demokrazia* izeneko proposamena aurkeztu genuen.

Aipatu proposamenean alderdiek hartu beharreko konpromisoak jasotzen genituen, baldin eta hainbat alderdi egiten ari diren mehatxuei behar bezala erantzungo badiete eta hizkuntza-berdintasuna diskurtsoaz harago ekintzen bidez defendatuko badute.

Horrela, dokumentuak hartu beharreko hainbat neurri biltzen du: hizkuntza guztiei estatus ofiziala aitortzeko bidea irekitzea, gaztelania ez beste hizkuntzen ezagutzaren unibertsalizazioa ahalbidetzea, hizkuntza guztien gaineko eskubide eta betebeharrak berdinak jasotzea, herritar guztiei zerbitzu egokia emango dieten langileak kontratatzea, justizia-sistema goitik behera aldatzea, egun gaztelaniaren erabilera derrigortzen duten bostehun arau baino gehiago baliogabetzea...



Hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten eragileen argazkia Madrilén.



4

HERRI-GOGOA

4.1. EUSKARALDIA

Duela bi urte Donostian egin genuen urteko irakurketan aurkeztar zegoela esan genuen. Iaz Bilbon egindakoan, hastear zegoela esan genuen. Aurten lehen edizioa eginda eta ebaluatuta dagoela esan dezakegu.

Zalantzarik gabe arrakasta handiz egin da da Euskaraldia, 225.000 herritar baino gehiagok hartu zuten parte. Horien artean lautik hiruk *ahobiziaren* rola hartu zuten, eta lautik batek *belarriprestena*.

Emaitzei dagokienez, eta sakon jasoko ez digun arren, SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK egindako azterketaren arabera, aldaketak eragin ditu Euskaraldiak parte hartzaileen hizkuntza-erabileran. Horrela, Euskaraldiko egunek eragin handia izan zuten partaideen jardunean: hogeï puntu hazi zen euskararen erabilera (%67tik %87ra). Egun horien arrastoa txikitu zen asteak igaro ahala, baina hiru hilabete igarota, parte hartzaileen artean euskararen erabilerak %6,6ko igoerari eutsi dio. Hortaz, datuek agerian jarri zuten eragin modua.

Indarguneei dagokienez, sei bertute nagusi nabarmendu zituzten partehartzaileek: izaera irekia, talde sentimendua, ohiturak aldatzeko trabak kentzea, norberarenak eta solaskidearen ohiturak aldaraztea, gogoeta egiteko aukera ematea eta txapa elementu baliagarria izan zela.

Hutsuneei dagokienez, parte-hartzaileei egindako galdeketa, honako hauek agertu zituzten: komunikazioan ez direla iritsi sektore guzietara eta ez dela ongi ulertu; erakundeek eskatu bai, baina urrats gutxi egin dituztela, zailtasunak izan dituztela ohiturak aldatzeko eta gune erdaldunetan kostatzen dela jendea biltzea.

Esan behar dugu, honez gero, bigarren edizioaren antolakuntzan buru-belarri ari direla, bai eta norbanakoengandik entitateetarako jautzia prestatzen ere.

4.2. KORRIKA

Hainbatek adierazi duten bezala, Euskaraldia ulertzeko duela bi edizioko KORRIKAK Santiago zubian utzitako argazkira jo behar da; elkarlanaren fasera igarotzeko garaia zela irudikatu zuen kilometrora hain zuzen ere.

Testuinguru horretatik abiatuta, 21. KORRIKAK hitzez haratago, konpromisoak eskatu ditu. Aro berriari klika egiteko eskatu zien AEK-k hamarnaka eragile politiko, sindikal, sozial, eta instituzionalak. Egitasmoaren helburua euskararen normalizazioan aurrerapausoak ematea izan da, baina norbanakoen konpromisoetatik haratago, erakundeak inplikatu nahi izan dituzte. Horrela, euskararen normalizazioa azkartzera konprometitu ziren berrogeita hamar erakunde baino gehiago, hala nola, Euskalgintzako eragileak, eragile politikoak, sindikalak, instituzionalak, sozialak... askotarikoak. Horrela, erakunde bakoitzak zeinek bere konpromisoak publikoki hartu zituen.

AEK-k bere aldetik argi azaldu zuen euskararen alde egoteak, besterik gabe, ez gaituela eramango normalizaziora. Horrela, benetako normalizazioa erdietsi nahi badugu, neurri politikoak, sozialak eta norbanakoen esparrua gaundituko dutenak hartu behar direla aldarrikatu zuen.





Bastidako kilometroa.

Amaitzeko, esan behar dugu oraingoan ere Euskalgintzako eragileek eta instituzioek kilometro bateratua egin zutela, oraingoan Bastidan. Halaber, gogoratzeko modukoa da KORRIKAREN amaieran leporaino beteta zegoen Gasteizko Andra Mari Zuriaren plazan Maialen Lujanbiok irakurritako mezua.

4.3. BESTELAKO EKIMENAK

Gizarte eragileen funtzio den aldarrikapenak ere tokia izan du. Aurten ere, izan da euskara erabiltzeko ezintasunagatik mobilizaziorik. **KONTSEILUAK** berak ere urrian elkarretaratzerako deia egin zuen, euskal gehiengo sindikalaren babesarekin, Nafarroako Gobernuak jauregiaren aurrean Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak kaleratutako epaiaren aurrean Gobernuari ausardiaz joka dezan eskatzeko.

Horrez gain, martxoan EHE elkarteak egun bizi dugun testuinguru soziopolitikoan kokatuta **"Egia, aitortza eta erreparazioa euskaldunontzat"** izeneko manifestua plazaratu zuen. Mila lagunek baino gehiagok sinatutako manifestuan hiru eskakizun egin zuten. Batetik, Espainiak eta Frantziak euskal hiztunen kontra inposatutako legeriaren eta erabakien inguruan ikerketa independente, integral eta sakona; bigarrenik, jazarpena eragin dutenen aldetik kaltea aitortzea, eta hirugarrenik, hizkuntza berreskuratzeko ahalegina ez oztopatzeko.

Nafarroako hegoaldera jauzi eginez gero, iaz **ERRIGORAK** bost urte bete zituela ospatzen genuen, eta aurten Agerraldia proiektua abian jarri behar duela ospatu behar dugu. Euskararen ezagutza zabaltzea, erabilera handitzea eta hizkuntzaren aldeotasuna indartzea ditu helburu proiektuak, eta, horretarako,

inguru horretako euskaldunen, euskaltzaileen eta eragileen arteko sarea sendotzeko asmo dute.

Orain arte euskara, auzolana eta elikadura burujabetza uztartua, hegoaldean euskara sustatu nahian diharduten eragileei eman izan dizkie irabaziak. Hemendik aurrera, Agerraldia elkarte ere batuko da zerrenda horretara, arestian aipatutako helburuak dituzten proiektuak garatzeko.

Nafarroako hegoaldean ere, aipatu nahiko genuke Nafarroako herritarrek bi ekimeni ekin diotela 2019an zehar. Lehena, maiatzean izan zen Erriberako erdaldun elebazarren agerraldia egin zuten euskara eremu guztietan ahalbidetuko duen lege berri bat eskatzeko. Bigarren ekimena urrian aurkeztu zuten, eta bertan 180 herritarrek euskara doan ikasteko bidea zabaldu zuten Erriberan.

Horrekin batera, **Ipar Euskal Herrian** hezkuntzaren inguruan izandako mobilizazio-andana azpimarratu behar dugu, bai SEASKAK postu berriak eskatzeko, bai eta eskola publikoko murgiltzearen alde. Azpimarratu nahiko genuke ekainaren 16ko argazkia, zeinetan, hiru sareek (ikastolek, eskola kristauak eta sare publikoak) elkarrekin egin zuten aldarria.

Eta herri gogoaren beste hamaika adierazpide ere izan dira: **Durangoko 53. Azokak** beharrian berrien arabera moldatzeko gai dela erakutsi zuen; ikerlari euskaldunen nazioarteko biltzar **IKERGAZTEN** 130 ikerlari bildu zituen euskarak Baionan; **Sarako idazleen biltzarren** 36. edizioa antolatu zen apirilean, **Seaskaren 50. urteurrena**, **Kilometroak**, **Araba Euskaraz**, **Nafarroa Oinez**, **Ibilaldia**, **Eskola Publikoaren Jaia**, **Eskola txikien Jaia**, **Eskola Publiko Berriaren jaia**, **UEUren 47. edizioa** 36 ikastarok hornitu zuren, 121 gaztek Euskal Herria zeharkatu zuten **EUSKARABENTURA**rekin, **puntu** **ueus domeinuaren** bosgarren urteurrena, Labayruk



Kontseiluaren elkarretaratzea Nafarroako Gobernuko jauregiaren aurrean

sustatuko **Derioko Ikastaro**en 50. Urteurrena, **Euskal Wikipedian** 2017an baino 800 artikulua eta 5 milioi bisita gehiago, ...

Amaitzeko, iazko irakurketan Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiaren mendeurrenei atal berezitua eskaini bagenien ere, oraingoan hona ekarri beharko genuke, batetik, Eusko Ikaskuntzak Liburu Zuriaren oinarriak aurkeztu zituela azaroan eta bertan euskarari dagokionez, besteak beste, hezkuntza sistema eraldatzea, euskalduntze sistema herritar guztien eskura jartzea, hizkuntza-eskubideak beste eskubide sozialen pare jartzea, administrazioa euskalduntzeko plangintza onartzea, estrategia digital bat ontzea etab. jaso zituela.

Euskaltzaindiak, aldiz, urtean zehar mendeurrenaren ospakizunari lotutako hainbat jardunaldi antolatu du eta horretaz gain, aipatzekoa da Euskara Batuarien Eskuliburua argitaratu duela, tresna baliagarria hizkuntzaren garapenerako.

5

ONDORIO NAGUSIAK

Hirugarren urteko irakurketa egin du Kontseiluak, eta horrelakoetan interesgarria da aurrekoei begirada egitea, nolabaiteko koherentzia eta jarraikortasuna bermatzeko.

Horrela, duela bi urte, eta urte hartan argitaratutako zenbait azterketen ondorioak kontuan hartuta, adierazi genuen ezen, zenbait argi gorri piztu zirela eta orain arteko hizkuntza-politikek goia jo zutela esan. Horregatik guztiarengatik hizkuntza-politiken sakoneko berrikuspena egin beharra ikusten genuen. Hizkuntza-politikak birpentsatu beharra jaso genuen. Are gehiago, adierazi genuen bide horretan, bazela garaia hizkuntza-politikak ikuspegi holistikoarekin eta integratzailearekin garatzeko; bazela garaia administrazioa sail eta maila guztietan eraginez, benetako zeharkakotasunez garatuko diren hizkuntza-politikak abiatzeko; bazela garaia instituzioen eta euskalgintzako eragileen arteko konplizitatez eraikiko den eta hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duen hizkuntza-politika abian jartzeko.

Iaz, aldiz, Euskaraldiaren lehen edizioak ekarriko zuen arrakastaz oharturik, *Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)* delako erronka jarri genion geure buruari. Alegia, hanka sozialean aktibatzea lortu zen energia hori, hanka politikoan urrats berriak eta ausartak egiteko baliatu beharko litzatekeela aldarrikatu genuen. Eta Euskaraldiak ekarri zuen lankidetzaz giro hori eremu politikora zabaldu beharko litzatekeela, hizkuntza-politiketan urratsak emateko akordioak landuz.

Esan behar dugu, erronka horrekin lanean hasi garela. Izan ere, 2019 urtea **adostasun sozial eta politiko** horien norabidea zehazteko erabili du Kontseiluak. Badakigu prozesu konplexua dela eta urrats guztiak zorrotzasunez definitu behar direla, baldin eta ekimen hau arrakastatsua izango bada.

Ez da, ez, Kontseiluak horrelako adostasun baterako lanketa mahai gaineratzen duen lehen aldia, eta, akaso, horregatik aurrekoetatik desberdin jokatzeko ariketa egingo dugu. Horrela, Kontseiluak **bi jauzi** egin beharra aurreikusi du. **Lehenik eta behin, adostasun sozialak eraikitze prozesu sendoa** egingo dugu, eta ondoren, adostasun sozial trinkoak baliatuz **adostasun politiko**en eremua jorratuko dugu.

Lehenengo jauzia izango da 2020rako erronka nagusia, alegia, Kontseiluko bazkideak eta Kontseilutik aparteko **gizarte eragileak adostasun horretara ekartzea**. Hortaz, adostasun sozio-politikoak eraikitze aldera, gizarte eragileak sustatzaile izatea nahi dugu. Askotan aipatu izan den gisan, hizkuntzen normalizazio-prozesuak gizarte osoa zeharkatzen duten prozesuak dira, eta beraz, euskalgintzatik aparteko **eragileen parte hartzea ere ezinbestekoa da**.

Bestetik, merkatuko indarren eraginez egungo gobernantza-eredua ezbaian jartzeko geroz eta ahots gehiago altxatzen ari diren garaian, **governantza-eredu berri batean** gizarte eragileon papera gero eta garrantzitsuago izan behar dela



Protokoloaren Udal Garapenaren aurkezpena Gasteizen

uste dugu. Horrela, gizarte eragileon arteko **adostasunak eta aliantzak lantzeak, halako gobernantza-eredu bat bultzatzeko** egokiago kokatzen gaitu, gizarte eragileok ahaldunduz.

Azkenik, gizarte eragileen artean adostasun hori zabaltzeak ekar dezake gizartearen parte handi batek bere egitea eraikiko dugun adostasuna, eta noski, **gaia agenda politikoan egoki kokatzea**. Funtsean, alderdikerien gainerik, hizkuntza-politika eragingarriak garatzeko berme bakarra, politika eraldatzaile horien norabidean gizarte eragileen indarrak biltzea dela uste dugu.

Adostasun horren edukari dagokionez, Kontseiluak orain bi urte eginiko urteko irakurketan aipatu zuen bezala, hizkuntza-politikaren eremuan inoizko adostasun sozialik handiena izan duen **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak** oinarri egokia eskain dezakeelakoan gaude. Gainera, oinarri hori are gehiago garatu genuen iaz Protokoloaren Euskal Herriko garapenaren baitan. Hortik abiatuta, beraz, ondorengo urteetan hizkuntza-eskubideen bermean jauzi kualitatiboa egiteko beharrezko neurrien gainera adostasuna lortzera joko da. Horixe izango da erdietsi beharreko adostasun soziala, eta, ondoren, politikoa.

Horrek ekarriko du, beraz, gizarte eragileak hizkuntza-eskubideekin lotutako proposamen baten bueltan artikulatzea eta aktibatzea; bigarrenik, hizkuntza-politikarako proposamen zehatz eta egingarriak garatzea, hirugarrenik arloz arloko estrategiak eraikitzea eta azkenik, hizkuntza-eskubideen, eta oro har hizkuntza-politikaren, gaiari agendan lekua egitea.

Jauzia egiteko ekimena aurkeztu nahi du Kontseiluak. Azken hiru urteotako irakurketek eta horietan aztertutako hainbat ekimenen bilakaerak, besteak beste Korrikak, Euskaraldiak, Eusko Ikaskuntzak garatutako kongresuak... planteamendu hau egiteko abagune egokia dela erakusten dutelakoan gaude.

Argi dago prozesua ez dela lineala izango eta ez dagoela emaitza aurreikusterik, baina, iruditzen zaigu **adostasun horiek ardaztuko dituzten elementuak hasiak** direla, honez gero, **agertzen**. Hor dugu, esaterako, **euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa**. Euskaraldiak berak erabilera ohituretan eragiteko bokazioa izanik, begien bistan jarri digu ezagutzaren unibertsalizazioaren gaia. Aipatu izan den bezala, hizkuntza-ohituren eraldaketan partida benetan jokatzen hasteko

ezinbestekoa da euskararen oinarritzko ezagutza unibertsalizatzea. Bestetik, ikusi dugu, bai, 2019an helduen euskalduntzearen doakotasuna hizpide izan dela behin baino gehiagotan. Azkenik, ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan euskara-gaitasun egokiak erdietsi behar dituztela azaleratzen ari da.

Egindako bideari begiratu eta elementu positiboak gorde, baina argi dago jauzia egin behar dela ikasle guzti-guztiek gaitasun egokiak eskura ditzaten. Gainera, helburuei dagokienez adostasun-maila handia dagoela ikusi da; hartara, goazen helburuak erdiesteko sistema egokia definitzera eta aplikatzera.

Gauzak horrela, **2020an jauzia egingo du Kontseiluak, baina garrantzitsuena da gizarteak berak ere jauzia egingo duela** adostasunen bidean.

2020an jauzia egingo du
Kontseiluak,
baina garrantzitsuena
da gizarteak berak ere
jauzia egingo duela
adostasunaren bidean.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA





EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

www.kontseilua.eus



@kontseilua



@EuskararenKontseilua